



Gasteizen euskarazko
hauek ez galdu:

TXAPELDUNEN SAIOA

Julio Soto, Amets Arzallus, Manex Agirre,
Arkaitz Estiballes, Aitor Mendiluze eta
Maialen Lujanbio
Urriak 6, 20:00. Jimmy Jazz Aretoa

FAMILIARENTZAKO ANTZERKIA

- **Miaules**
Principal antzokia, urriak 16, 18:00

XTRACLUB!

- **SKATE & SKATE-SCOOTER HASTAPENAK**
Urriak 15, 22, 29 eta azaroak 5
Landatxoko kiroldegia, 16:00-18:00
- **SKATE & SKATE-SCOOTER AURRERATUA**
Urriak 15, 22, 29 eta azaroak 5
Landatxoko kiroldegia, 18:00-20:00
- **ZALDIZ IBILTZEN IKASI, Haranan**
Urriak 15, 22 eta 29. 10:00-14:30
- **ARABAKO BOLOAK**
Urriak 21 eta 28
Foru plazako bolatokia, 19:00-21:00

GAUEKOAK

- **PARKOUR IKASTAROA**
Urriak 7, 8, 14 eta 15
Aldabe GE, 18:00-20:00

MINTZALAGUNA

Euskara ikasten ari bazara, aspaldian
ikasi bazenuen eta ez duzu norekin hitz
egin... Hona hemen aukera ezin hobea:
Mintzalaguna.
Urritik aurrera, animatuko al zara?
Baldintza bakarra, 6. urratetik gorako maila
izatea. Urtero mintzalaguntzaileak behar
izaten ditugu, aurten animatuko al zara?
Tel. 688819118
mintzalaguna@geugasteiz.com

EUSKARA IKASTEKO DIRU-LAGUNTZAK

- **Programa arrunta**
Herriarrentzat
- **Programa berezia**
 - Aisialdiko begiraleentzat
 - Eskola kiroleko entrenatzaile edo begiraleentzat
 - Aurrekoetarako ikasten ari direnentzat
 - Gurasoentzat
 - Merkatarientzat (Merkataritza eta Industria Ganberaren bidez)

**Etorri eta gozatu
gurekin!**



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Bero-beroan — ONINTZA IRURETA AZKUNE

Euskara irakatsi aurretik kontuan hartzekoak

“GUK IKASI NAHI DUGU, baina kontua ez da besterik gabe euskara ikastea. Nola hasiko naiz hizkuntza ikasten sozialki baztertua banaiz? Beltzek, ijitoek... autoestimua baxua daukate. Komunikabi-deek egurra ematen digute, gizarteak egurra ematen digu. Euskalte-giak pribatizatzen ari dira. Nire bikotekidea joan zen izena ematera eta 500 euro eskatu zizkieten ikasturtea hasi aurretik”. Mario Hum-berto Calixtok, Emunek antolatutako *Kulturartekotasuna. Herria, hezkuntza eta bizkuntza* izeneko jardunaldietan esanak dira. Calix-to Bachue-ko kidea da, gurean errefuxiatutako kolonbiarren elkar-teko kidea. Kataluniako Olot ingurutik etorritako Xavier Casade-mont (immigrazio kontuetan aditua) tankerako abisuekin etorri zitzaigun: inkesta batean katalanei galdetu zitzaion ea zein ziren haien arazo nagusiak; bada hirugarren tokian immigrazioa jarri zuten osasungintzaren eta hezkuntzaren aurretik. Casademonten iritziz, etorkinez zurrumurruak, estereotipoak eta aurreiritziak asko dira. Horiek denak alboratu behar dira lanean hasteko.

Interesgarria irakaskuntza eta immigrazioa lotu zituen tailerra, Jose Manuel Palacios, Hezkuntzako Berritzegune Nagusiko aholku-lari kolaboratzaileak gidatutakoa. Irakasleak ikasgeletan egiten ari diren lanak merezi du artikulu mardula.

TALAIAN

Sozietateen zerga eskastua

Patronalak ez du ezer entzun nahi politika fiskal berri baten bidez zergak igotzeaz. Eta hainbat arrazoi ematen ditu: “Ekaitz finantzario garaian, ez da une onena zergen igoeraz hitz egiteko, kontrakoa, jaisteko momentua da”. “Lehiakortasuna hobetzeko, ezin dira zergak igo”. “Ondarearen gaineko zerga iraganeko kontua da”. “Dirutza dutenei ezin zaie bultzatzea hemendik alde egiteko”. Eta abar.

Patronalak esan ez duena da, enpresen etekinak kargatzeko balio duen Sozietateen Zerga erabat murriztuta geratu dela konpainiek egindako amarru legalengatik eta azpijoko fiskalengatik. Azkenean, %10 baino ez dute ordaintzen, eta ez enpresa handientzat ezarrita dagoen %30a edo enpresa txiki eta ertainei dagokien %25a. Espainiako Estatuko Tributuen Agentziak egindako ikerketa baten arabera —ez dugu Hego Euskal Herriko egoeraren berri zehatz jakiteko daturik, baina zalantzarik gabe, antzekoa da—, enpresek zergetan euren etekinen %9,9 baino ez dute ordaintzen. Horrela, enpresek familiek baino gutxiago ordaintzen dute, hauek errenten %11,5 bideratzen baitute zergetara. Euskal Herriko patronalak dio presio fiskala Europakoa baino altuagoa dela. Ez da egia. Amortizazioak ezabatu, kontuak garbitu eta tributuetan kenkariak aplikatu ondoren, sozietateen zerga erreala gehiago hurbiltzen da irlandar eredu eztabaidagarria —enpresaren etekinen %12,5—, euroguneko batez bestekoa den %26ra baino.

Arduradun politikoez zerga hori birkokatu beharko lukete, eta eragotzi enpresek, batez ere handienek, azpijokoak eginez zergaren zati handi bat ez ordaintzea. Kontrakoa dioen arren, Patronalak badaki sozietateen zerga murriztua geratu dela. Zulo bat dago hor, politikariek landu eta adostu beharrekoa.



Juan Mari Arregi